



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteazkena
2008-11-12**

VIURTEA 1.557.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Jaialdi gastronomikoen lehen hitzordua, Babarrunaren Festa

TOLOSA Hilaren 19an ekingo diote festari: topaketak, mahai-ingurua, azoka, dastaketak, lehiaketak,... izango dira

TURISMOA Abendurako, berriz, Txuletaren Festa antolatu dute; «jendea erakartzeko bide garrantzitsua dira» 2



Babarrunaren Festa Fronton kafetegian aurkeztu zuten; Txuletarena aurkezteko, berriz, Julian jatetxera joan ziren. E.E.



Zaldi proba egin zuten atzo San Martin jaien baitan. I.GARCIA

Jai giroan ospatu dute San Martin Eguna Amasan eta Amezketan

TOLOSALDEA Amasara Martina sorgina heldu zen; Amezketan, berriz, Umeen Eguna izan zuten 5

Espainiako Polizia Nazionalak Irati Mujika atxilotu du Iruñean 'Segi'-ko kide izatea leporatuta

AMEZKETA Elkarretaratzea egin zuten atzo herritarrek; gaurkorako ere deitu dute Tolosan; AAMk «tortura arriskua» salatu du 7

Gazte Topagunearen IV. Urtemuga Festa, bihar, etzi eta larunbatean

TOLOSA Askaria, bingo saioa eta tailerrak izango dira, besteak beste 3

Ramon Otegi bere anaiaren marka hausten saiatuko da igande honetan

GAZTELU Udaletxetik Uliko aterpetxera joan- etorria egingo du 6

Hemen da berriro ere urteko hitzordu gastronomiko garrantzitsuena

Aisia » Hilaren 19an hasiko da Babarrunaren festa; hilabetea amaitzerako berriz, gurean izango da Txuletarena.

ESTI ZEIZA

Urtean zehar Tolosan ospatzen diren bi jaialdi gastronomiko garrantzitsuenak gero eta gertuago dira. Hori dela eta, hauek aurkezteko modu berezia aukeratu zuten atzo. Izan ere, hilaren 19an hasiko den Babarrunaren festa, jaki honen prestaketa eredu den Fronton jatexean aurkeztu zuten, platera dastatzen zen bitartean. Hemen, Julian erretegi bideratu ziren antolatzaileak, abenduko le-

hen asteburuan ospatuko den Txuletarena festa ezagutzera emateko.

Agerraldian parte hartu zuten Jokin Bildarratz Tolosako Alkateak; Rafael Uribarren Gipuzkoako Aldundiko Landa Ingurunaren Garapeneko Diputatua; Gipuzkoako Aldundiko Kiroletako eta Kanpo Ekintzetako Diputatu den Iñaki Galdosek; Jose Miguel Gomez Tolosako Udalako Turismo Zinegotziak eta Mari Karmen Iradi Tolosako Babarrunaren Elkarteko Lehendakariak.

Hainbat esparru lotzen dituen egitasmoa

Babarrunaren eta txuletarena festa turismoa erakartzeko bide garrantzitsu dira Tolosarentzat, eta hein

batean, Gipuzkoarentzat. Iñaki Galdosen hitzetan, «Babarrunaren Festa adierazten du, hainbat esparru lotuta joan daitezkeela, kultura, landa garapena eta turismoaren sustapena besteak beste».

Landa garapenaren ikuspegitik, «Tolosan, babarrunaren inguruan egiten diren ekintzak oso garrantzitsutzat» jotzen ditu Rafa Egiguren. Izan ere, Foru Aldundiak duen erroketako bat da lekale honen landaketaren sustapena. Jokin Bildarratzek, Fronton jatetxe-ko sukaldari den Roberto Ruizen lana goraiatu zuen, «babarrunaren garapenean pertsona oso garrantzitsua baita». Ruizi ez ezik, aipamen berezi bat egin zien Tolosako lau erretegi garrantzitsuenetako arduradunei: Casa Ju-

lianeko Matias Gorrotxategiri; Casa Nicolaseko Pedro Ruizi, Burruntziko Juanjo Pascuali eta Orueko Javier Hualderi.

Lehendabizi, babarruna

Hilaren 19an hasiko da Babarrunaren Festa. Dena den, aperitibo gisa, hilaren 15ean, VIII. babarrunaren mus txapelketa azkarra jokatuko dute Beotibar pilotalekuan. 16:30ean hasiko da norgehiagoka, eta irabazleentzat sari garrantzitsuak izango dira. Iaz 82 bikotek hartu zuten parte.

Hilaren 19an, *Tolosako babarruna, orain eta gero* izenburupean, mahai-ingurua izango da. Ekitaldian parte hartuko dute Joxe Antonio Garmendia Gipuzkoako Fotu Diputazioko Landare Alorreko zuzendariak; Jorge Hernandez Slow Food Espainia-koak; Roberto Ruiz Fronton jatetxeak; Mario Cordero Leongo Bañezako babarrunaren zuzendari teknikoak eta Xabier Goikoetxea Tolosako Babarrunekoizleen elkarteak.

Bestalde, urteroko ohiturari jarraituz, babarrunaren pintxo lehiaketa egingo dute hilaren 20an. Hurrengo egunean, bi azoka izango dira ikusgai eskualdeko hiriburuari: liburuarena eta artisautzakoa.

Babarrunaren festako egun nagusia hilaren 22an izango da. Orduan ospatuko baita, besteak beste, babarrunaren ekoizleen lehiaketa, Triangulo plazan. Honetaz gain, azoka, txapelaren lehiaketa, lakari bat babarrunaren enkantea

eta doako herri babarrun jatea izango da.

Berrikuntzen artean, aipatzeko da, Gure Kaiola elkarteak antolatzen duen Tolosako babarrunaren lehiaketa gastronomikoa Zerkausion gauzatuko dela, eta ez Ferialekuan, aurreko urteetan bezala. Bertan izango da ere, 500 lagunentzako ondorengo herri bazkaria. Menuaren prezioa 22 eurokoa da, eta elkarrean bertan erosi daitezke 19:30etik 21:00etara bitartean edo Zerkausion, hilaren 23an, 10:00etatik aurrera. Tokia gordetzeko ondorengo telefono zenbakira ere dei daitezke: 607 67 27 09.

Aurtengo uzta

Mari Karmen Iradik, Tolosako Babarrunaren Elkarteko Lehendakaria azaldukoaren arabera, «aurtengo udaberrian marka guztiak haustekoak ginen, elkarrean sortu zenetik, inoiz erein den metro kuadro kopururik handiena erein behar genuela zabaldu genuen, baina ez da horrelakorik gertatu». Garai horretan botatako euririk zenbait ekoizle atzeratuaz zituen eta ez zuten erein. «Bestalde, azken egunetako euriteak kenduta, oso udazken ona egin du eta orain arte bildutako babarrunak kalitate aparta du», gaineratu zuen atzo Iradik.

Aurtengo urtea baserriarren gogoan geratuko dela diote elkarrekoek, «ez lortutako uzta handiagatik, honek duen kalitateagatik baizik». Ondorioz, galera gutxiko urtea izango da. 20.000 kilogramo biltzea aurreikusten dute. Egun 60 ekoizle osatzen dute Tolosako Babarrunaren elkarte, eta denera 19,5 hektarea lantzen dituzte. Bakotzak batatzeko, 4.000 metro koadro lantzen ditu.



Casa Julian erretegiari aurkeztu zuten atzo eguerdian Txuletarena festa, jakia dastatzen zuten bitartean. I. TERRADILLOS

» BABARRUNAREN FESTA

Azaroak 15, larunbata

■ **VIII. Babarrunaren mus txapelketa azkarra.** Beotibar pilotalekuan izango da 16:30etik aurrera.

Azaroak 19, asteazkena

■ **'Tolosako babarruna, orain eta gero' mahai-ingurua.** Kultur Etxean egingo da, 19:00etatik aurrera. Sarrera doan izango da.

Azaroak 20, osteguna

■ **Tolosako babarrunaren inguruko topaketa.** Donostiako Hotel Londresen izango da babarrunaren inguruko topaketa. Hau, Tolosako Babarrunaren Kofradiak antolatzen du. Bertan, 2007 urteko ekoizleen lehiaketako irabazlearen babarrunak dastatu ahal izango dira, Roberto Ruizek prestatuta.

■ **Tolosako babarrunaren pintxo lehiaketa.** 17:00etan izango da, Zerkausion. Ostalaritzako edozein etxek har dezake parte.

Azaroak 21, ostirala

■ **Liburu azoka eta artisautza feria.** Hilaren 21etik 30era bitartean

egongo da jarrita San Frantzisko ibiltokian Liburuaren Ganbarak antolatutako azoka. Bestalde, hilaren 21etik 23ra bitartean, Napalur artisau taldearen 20 postu egongo dira toki berean.

■ **'Slow food' afari irekia Fronton jatetxean.** 50 lagunentzako afari irekia izango da. Bertako elikagaiak, baina beren ezaugarri, kalitate eta ekoizpen eskala txikiagatik oso bereziak direnak dastatu ahal izango dira. Tokia gordetzeko ondorengo telefonora deitu behar da: 943 65 29 41.

Azaroak 22, larunbata

■ **Babarrunaren ibilbidea.** Goizean, Tolosaldea Tourrek bisitaldi gidatuak eskainiko ditu. Bisitari horiek babarrunarekin zerikusia duten hiriguneko lekuetatik igaroko dira.

■ **Azoka eta babarrun dastaketa.** Triangulo plazan, 09:00etatik aurrera, babarrunaren ohiko azoka izango da. 12:00etan, Babarrunaren kofradiaren eskutik, aukera izango da Tolosako lekalea jateko

dohainik, baita, sagardoa edateko ere. Horretarako, 35 kilo babarrun baino gehiago prestatuko dituzte.

■ **Tolosako babarrunaren ekoizleen lehiaketa eta lakari baten enkantea.** 08:00etatik aurrera, Triangulo plazan izango da lehiaketa. Irabazlea nor den jakin ostean, 13:15ean, enkantea egingo da. Bildutako dirua Togoko San Paul ikastetxe elizbarrutiko eskolara izango da.

■ **Txapelaren lehiaketa.** Txapela nork ondoen jantzi lehiaketa jokatuko da Txinparta elkarrean, 11:30etik aurrera.

Azaroak 23, igandea

■ **Tolosako babarrunaren lehiaketa gastronomikoa.** Gure Kaiola elkarteak antolatuta, Zerkausion izango da 08:30etik aurrera. Nork babarruna ondoen prestatzen duen baloratuko da. Sari banaketa toki berean egingo da, 13:00etatik aurrera. Ondoren, 14:30etik aurrera, Gure Kaiolaren eskutik herri bazkaria izango da 500 lagunentzat.



Casa Julianeko Matias Gorrotxategi txuletak prestatzen. I. TERRADILLOS

Asis Sarea aurkeztuko dute bihar, Frantziskotarren komentuan

Gizartea » 19:30ean izango da ekitaldia; Arantzazun sortu zen sare hau, Asis Espirituaren egunean.

ERREDAKZIOA

Urriaren 25ean, Asis Espirituaren eguna ospatzen zen egun berean, Asis Sarea sortu zen Arantzazun, beren eguneroko bizimoduan frantziskotarren espiritualtasuna ezagutu, partekatu edo bultzatu nahi duten laikoen sare irekia.

Lau puntutan laburtzen dute frantziskotarren espiritualtasunaren sarrera gisa bere gaurkotasuna: Frantzisko Asiskoa Jainkoarekiko zuzeneko harremanaren bila zebilela, Jesusen eta haren hitzaren jarraitzaile izatea zuela bidea ohartu zen; Umiltasuna, pobrezia espirituala eta materiala ditu ezinbesteko lagunak bide hori egiteko; zertarako horrenbeste maitasun, besteekin partekatzeko ez bada? Jesusengan aurkitu zuen anaitsunaren begirada, giza duintasuna eta horrekin lotutako guztia.

Eskualdean ekimen hau ezagutzera emateko Asis Sarearen Tolosaldeko talde bultzatzaileak aurkezpen bat antolatu du. Bihar izango da, 19:30ean Frantziskotarren komentuan. Informazio gehiago 646 214896 zenbakian edo asissaa@arantzazu.org helbidean jaso daiteke.



Uztailan Topagunean egin zuen festaren une bat. ASIERIMAZ

Gazte Topagunearen IV. Urtemuga Festa, ekitaldiz beterik

Gizartea » Askaria, bingo saioa eta tailerrak izango dira, besteak beste, bihar, etzi eta larunbatean, Kultur Etxeko lehen solairuan.

ERREDAKZIOA

Tolosako Gazte Topaguneak 4 urte beteko ditu sortu zenetik, eta urtemuga ospatzeko ekitaldi bereziak antolatu dituzte. Askaria izango da, jokoak, tailerrak... hiru egunetan banatuta.

Udaleko Gazteria Sailetik azaldu bezala, «geroz eta gehiago hartzen dute parte gazteek, aukera handiagoak dituzte, ekitaldi gehi-

go prestatzen baitira eurei zuzenduta»; urtemugako festa, esaterako aurten hiru egunetan egingo dute, «antolatutako ekitaldiak zabaldu nahi izan ditugulako».

Hala, lehendabiziko ekitaldia serigrafia tailerra izango da; hau pasa den larunbatean hasi zuten, eta etzi izango da berriro ere, 17:00etan. Bestalde, bihar bingo saioa egingo dute, 18:00etan hasita.

Larunbatean izango da egun handia; 18:00etan hasiko da festa, eta lehendabizi askaria hartuko dute gazteek, eta ondoren *Alla tu erraldoia* jokoan jostatzeko aukera izango dute, Kultur Etxean kokaturiko Gazte Topagunean.

Lider postua galdu du Tolosak Aurreraren aurka galdu ostean

ERREDAKZIOA

Ondarroako Aurrera taldearen aurka jokatu zuen partida asteburuan Tolosa CFk, eta 2-1eko emaitzarekin buelatu beharra izan zuen etxera. Denboraldi honetako hirugarren partida galdu, beraz, Tolosak, eta ondorioz, 18 punturekin, lider postutik jeitsi da bigarrenera. Pasaia dago orain lehen postuan 19 punturekin.

Aurrera gehiago izan zen partida osoan, beraz, merezitako garai-

pena izan zen beraientzat. Dena den, tolosarrek estreinatu zuten markagailua. 8. minutuan, Rome-rok sartu zuen 0-1ekoa.

Etxeko taldeak, hau da, Aurrerak joko ona egin zuen, eta partidari buelta ematea lortu zion. Hala, Akarregik sartu zuen 41. minutuan 1-1ekoa, eta Ganboak 59. ean 2-1ekoa.

Amaitzek Bat taldearen aurka-koa izango da tolosarren hurrengo partida.

Denboraldiko lehen porrota Bide Bide Ibiza saskibaloitaldearentzat

ERREDAKZIOA

Partidu berdina izan arren Ardoi taldeak garaipena poltsikoratu zuen 69-72ko markagailuarekin. Aurreko astean tolosarrek Iruñean lortutako garaipen ikusgarriaren ondoren taldeak morala gainezka zuen Ardoi etxean jasotzeko, baina ez zen posible izan.

Bisitariak indartsu hasi ziren 0-8ko partziala eginez, baina Bide Bide segituan sartu zen jokoan eta aurretik jartzea lortu zuen, 12 puntuko aldea ateraz. Orduan, Ardoi-

ko jokalariek joko aldatu zuen, eta markagailuan gerturatzea lortu zuten. Defentsan presioa areagotu zuten, eta aurretik jarri ziren. Azken laurdenera parekatu iritsi ziren, baina azkenean gehiago izan ziren aurkariak, eta tolosarrek zorretan ere ez zutela alde aipatu behar da. Azken emaitza 69-72koa izan zen.

Hurrengo astean E.Lecrerc taldegasteiztarraren aurka jokatuko dute. Bestalde, zozketako zerbaki irabazlea 642 zenbakia izan zen.

Laskorainek ezin izan du Sasikoa taldearen aurka

ERREDAKZIOA

Igandean Sasikoaren aurka esku hutsik itzuli behar izan zuten Alonsoren mutilek norgehiagoka ona jokatu zuten arren. Azken emaitza 4-1ekoa izan zen.

Espertentzia handiko taldea da Sasikoa, eta aurtengo txapelketa irabazi dezakeenetakoa, eta hiri-

erakutsi zuen Laskorainen aurkako partidari. Sasikoak ongi jokatu zuen, eta merezitako garaipena lortu. Laskorainek huts handiak egin zituen atearan aurrean, eta horrelako talde gogorren aurrean ezin dira horrelako aukerak baliatu gabe utzi. Zabala gaztea izan zen Laskoraintzat gola egin zuena.



Poloniarren emanaldi hunkigarria

KULTURA • Mundua Tolosan zikloaren baitan, larunbatean Kroke talde poloniarraz gozatzeko aukera izan zen Leidor aretoan. Hain zuzen ere, *Seventh trip* lana aurkeztu zuten. Jende ugari erakarri zuen taldeak, eta

horietatik asko benetako jarraitzaileak zirenak. *La lista de Schindler* filmeko abesti ezaguna jo zuten hauek eskatuta, guztien gozamenerako. Oro har, beraz, asko gustatu zitzaizen bertaratuei zuzeneko emanaldia. **NEKA**



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Udalak 100 aparkaleku egokitu ditu Txerminen

Villabona » Marrak margotu dituzte, seinaleak ipini eta lkastolaren ondotik sarrera egokitu berri dute.

IMANOL GARCIA

Villabonako Udalak Txermin Berrian dagoen aparkalekua egokitu egin du. Guztira autoentzat 100 plaza jarri ditu, marrak margotuz, seinaleak ipiniz eta sarrera bat egokituz Ikastolatik. Remi Ayestaran zinegotziak azaldu duenez, «Ikastola ondoko sarrerarekin aparkalekua gerturatu egiten da herriko erdigunera eta orain herriko plaza bost minutura gelditzen da aparkalekua».

Ayestaranek gaineratzen duenez, «honekin ez dugu konponitzen Villabonak duen aparkale-



Txermingo aparkalekua herriaren sarreran dago, N-1 errepidearen ondoan. I. GARCIA

kuen arazoa, ezta gutxiago ere. Bai konpondu lezake Txermin Berrira auzoko arazoa eta herriatik kanpo-

ra etortzen direnek aparkalekua izatea». Esaterako, Larrea eta Arroa auzoak «aparkalekuekin

arazoak dituzten bi auzo handi dira», azaltzen du Ayestaranek, «eta horren inguruan ari gara az-

tertzen Udalean beste irtenbide batzuk».

Aurreko urtearen amaieran inkesta bat egin zuen Udalak herritarren artean, kezka nagusiak jakiteko. «Aparkalekuen gaia aipatu zuten gehientsuenek», dio Ayestaranek. «Aurretik esanda zegoen Txerminen aparkatu behar zela, baina utzi behar zegoen. Espazioa bazegoen, baina marrak margotzea eta seinaleak jartzea falta zen». Horrela, aparkalekua egokitzea pentsatu zuen Udalak eta 30.000 euroko gastua egin du lan horretan.

Zinegotziak gaineratzen duenez, aparkalekuaren arazoari irtenbidea «ezin da erdigunetan topatu, inguruetan topatu behar da irtenbidea». Bide batez, Ayestaranek herritarrei eta inguruko herrietakoei aparkalekua erabiltzeko gonbitea luzatzen du.

Laburrak

Mahai jokoan txapelketa egingo dute Alkartasunan

ANOETA » Gaur, bihar eta etzi Alkartasuna biltokian mahai jokoan txapelketa egingo dute. 17:30ean hasiko dira jokoak: mus zortzi erregetara eta lau erregetara, tutea, puntua, eskoba, seikoa, txinton eta dominoa. Izena emateko gaur 17:00ak baino lehen egin behar da. Sari banaketa hilaren 15ean egingo da. Sari banaketaren ondoren pintxoak izango dira. Irabazleek Tolosaldeko txapelketan parte hartuko dute.

Haurrentzako txotxongilo emanaldia Asvinenean

ADUNA » Haurrentzako txotxongilo antzezlan antolatuko du Asvinenean. *Den dena niretzat* izenburua duen emanaldia egingo du Behibi's taldeak, bihar, 18:00etan. Sarrerak 3 euro balioko ditu eta 5 urte eta gorakoentzat zuzendutako emanaldia izango da. Obran, Makila Jaunak hiri osoko basoak suntsitu nahi dituela erakutsiko da. Baina Kattalin eta bere familia hirian gelditzen den azkeneko basoan bizi dira, eta ez dute saldu nahi.

Kafearen merkataritza sakon ezagutzeko aukera

Villabona » 'Black Gold' dokumentala ikusteko aukera izango da bihar, kafearen merkataritza eta salerosteka ezagutzeko.

I. GARCIA

Kafearen produkzioa eta merkataritza gertutik eta sakon ezagutzeko aukera dute villabonatarrek egunotan, Setem Hegoa elkarteak antolatu duen argazki erakusketa eta dokumental emanaldiarekin. David Quintasen *Kafearen begiradak* argazki erakusketa ikusgai dago Gurea aretoko erakusgelan, egunero eta igandera arte, 17:00etatik 20:00etara. *Black Gold* dokumentala bihar ikusi ahaliko da Gurea aretoan, 19:00etan.

Haritz Azkue Setem elkarte kideak azaltzen duenez, dokumentalaren aurretik, «labur-labur bada ere kafe produktioari eta merkataritzari buruzko sarrera bat egingo da, filmaren gaiaren testuinguru moduan. Amaieran, galdereantzunei edota ikusleen komentarioei bidea emango zaie». Eraberean, bidezko merkataritzako produktuak dastatu ahal izango dituzte bertaraten direnek. «Bidezko merkataritzako produktuak geroz eta zabalago direnaren erakusgai, produktuen mustrario bat ere egongo da ikusgai», zehazten du Azkuek.

Egungo merkataritzaren inguruko sentsibilizazio kanpinak burutzen ditu Setem elkarteak. «Kafea, nazioarteko ohiko merkataritzaren kalteak ezagutzeko eredu



Argazki erakusketan ikusi daitekeen irudietako bat. DAVID QUINTAS

paradigmatikoa da», dio Azkuek. «Ohiko merkataritzaren barruan kafea nola produzitzen den eta nola salerosten den ikusiaz, merkatu honek sortzen dituen kalteak ikusten eta ulertzen lagunduko digu. Kafearen eredu erabiliz, bestelako lehengaien merkatuek ere nola funtzionatzen duten uler dezakegu: tea, kotoia, arroza...».

Oztopo lasterketa

Kafearen ereduari begiratu, nazioarteko merkatuen funtzionamendua eragiten duten hainbat faktore ikusi daitezke: herrialde pobretuen menpekotasun egoera, kanpo zorra eta doikuntza estrukturalako planak, arauak norik eta noren mesedetan hartzen diren, muga-zergak, *dumping*-a, patentak, enpresa multinazionalen borka... «Azken batean, herrialde pobretu batentzat nazioarteko merkatua oztopo lasterketa bat da, herrialde aberastu batentzat chun

metro lauak egitea den bitartean», dio Azkuek.

Herrialde aberastuetako herritarrek zer egin dezaketean galdetuta, bi mailako proposamenak egingo ditu Azkuek: «Batetik, pertsona eta hiritar moduan, gure kontsumo ahalmen pertsonala erabiltzea kontsumo arduratsu baten alde eginaz. Bidezko merkataritzako produktuak ezagutzeko eta erostea, baita ere produktu horiek eskatzea tabernatan, kafetegietan, lantokiko vending makinatan, herriko dendatan...». Hain justu, Villabonan hileroko bidezko merkataritzako postu bat jartzen du Malkar elkarteak, hileko lehen igande goizean, Gurea antzokia- ren aurrean. Bestetik, Setemeko kideak azaltzen duenez, «mik beti pentsatu izan dut ardura pertsonalaz gain beti bilatu behar delar antzeko jende eta taldeekin indar bateratua egitea, kanpainak bultzatuz, salaketa eginaz...».

gauri irakin

Zinema etxean 3

azaroaren 15etik aurrera larunbat eta asteazkenetan DVD bat

6 DVD euskaraz

1. Heidi 2. Heidi bihar
3. Pippi gaitzazu
4. Asterix Britanian
5. Azti Ikaslea
6. Txoritxoak
7. Zientzia filztoa

HARRIPESENTZAT: BILDUMA OSOAN 24 € ESKARIA EGITEKO: 943 30 43 45



Amasako zaldi proban 100 bat lagun bildu ziren, animalia hauen indarrak jabetzeko. IMANOL GARCIA

San Martin Eguna Amasan eta Amezketan ospatu dute

Aisia » Amasako jaietara Martina sorgina etorri da; Amezketan, Umeen Eguna izan zuten San Martin Egunean.

NEREA URBIZU

Txerri-hiltzearekin lotzen ohi da San Martin Eguna: garaia izanagatik, ez zuten atzoko eguna Amasako sanmartinetan eta Amezketan hala ospatu, baina jai egin zuten. Atzo iluntzean Amasan sorginaren jaitsiera izan zuten, festen hasiera iragartzeko baina aurretik hainbat gauza izan zituzten, zaldi proba bertolariekin, hain zuzen.

Amasako jaien baitan, beraz, zaldi proba izan zen mezaren ondoren, eta jende ugari bildu zen bertan, euria ari zuen arren. Zaldia harritik tiraka, animalia hauek duten indarra agerian gelditu zen.

Amasan gaur mondeju afaria

Gaur, Amasako jaiekin jarraituz, arratsaldean (17:00etan) joko garbi partida izango da eta ondoren pala partida. Bukatzeko, mondejua dastatzeko aukera izango da Uxo Toki elkartearen. Afaltiarak 20:30ean elkartuko dira bertan. Hurrengo egunean, baina

06:00etan (mondeju afariaren ondoren, baten batek agian irauango du esna), gazteengosaria izango da Ongi Etorri tabernan, trikitilari eta dultzaineroekin batera.

Amezketako Umeen Eguna, arrakastatsua

Amezketan San Martin Eguna bazkari batekin ospatu zuten eta bertolaria ere aritu ziren. Dantza egiteko aukera ere izan zen Lajaren doinu alaiekin. Bazkaldu ondoren, frontoian haurrek jolasak izan zituzten, eta herri kirolekin ere lehen loturak izan zituzten: txingak, lasto-altxatzea, lokotx-biltzea... Ondo moldatu ziren.



Gurdia altxatzeko indarrak atera behar izan zituzten Amezketan. N. URBIZU

Haur handienak 16 kiloko txingekin ausartu ziren eta marka nok hobetoen egin aritu ziren. Baten batek 10 bira egitea ere lortu zuen...

Baserri bat, aharien arteko burruka beharrea, kulunkak, baserrietako tresneria, potoak... Denean aritzeko aukera izan zuten txikiak. Gustura ibiltzeko arratsaldea izan zen.

Gaur, berriz, Kultur Hamabostaldiarekin jarraituz, Gerra Zibilarri buruzko hitzaldia emango du Mikel Errazkinen, 20:30ean balioanitzeko gelan. Etzi, Anjel Cuerdoren Cheri buruzko proiektzioa izango da.

'Alegia barne-barnetik' herriari buruzko ordu erdiko proiektzioa, gaur

Alegia » 'Udazkenean Kultura' -ko ekimenen baitangoa Kultur Etxean izango da; 'Herria kantuan' ere salgai dago jada.

N. URBIZU

Gaur, *Udazkenean Kultura* aren baitan, Alegiko Kultur Etxean *Alegia barne-barnetik* proiektzioa izango da. 19:00etan hasiko da eta irekia da. Aitor Sarasola alkatea ere bertan izango da aurkezpentxo bat egiten eta bideoan ikusi ahal izango dena pixka bat azaltzen.

Ordu erdi irauango du herriari buruzko proiektzioak eta tartean,

urtean zehar egiten diren ekitaldiarikustea ere posiblea izango da. Arkitektura eta ondare historikoari lekua ere egiten dio proiektzioak. Beraz, herriarrek agian ez dakizkiten bitxikeriak ere ikusi ahal izango dira. Bideoa Galdare proiektzioen ekoizpena da.

'Herria kantuan' salgai

Bestalde, joan den ekainean Alegian egin zuten *Herria kantuan* emanaldia ere grabatuta dago, eta DVDak atera dituzte. 10 euroren truke bi DVDz osatutako sorta eskuratzeko aukera dago, eta emanaldia osorik ikusi daiteke bertan. Kultur Etxera jo behar da DVDa eskuratzeko.

Laburrak

Bertso eskolari buruzko argibideak gaurko bileran

IKAZTEGIETA » Ikaztegieta helduentzako bertso eskola antolatuta dute. Eskolak jasotzeko orduategia eta egutegia zehaztea falta da eta horretarako gaur bilera antolatuta dute udaletxean, 20:00etan. Bertso eskola honetan izena eman dutenez gain, beste inork parte hartu nahi izanez gero, gaur eman dezake izena bileran bertan. Orain arte izena emanda daudenak azaltzea eskertuko dute.

Herrigintza elkartearen festan bazkaria izango da

IKAZTEGIETA » Herrigintza elkartearen festa eguna igandean izango da, herri krosarekin batera. Egun honetan, elkarte bazkideen bazkaria izaten da urtero. 30 euro ordaindu beharko du bazkideak izena ematean, elkarte bertan, eta izena emateko azken eguna bihar da. Bestalde, krosak eskatzen duen antolakuntza maila ikusita, laguntza emateko asmoa dutenak 09:00etan azaltzea eskatu dute elkartekoek, «izango da eta, zer egin».

Festetan lanean aritu zirentzat afaria

ALBIZTUR » Abuztuan, Albizturko festetan hainbat herritar lanean aritu ziren, festen baitan. Horregatik, herriko Festa Batzordeak herritar hauen lana eskertzeko asmoz eta urteroko ohitura jarraituz, afari batera gonbidatu nahi ditu. Errezilgo Letean izango da afari hau, datorren larunbatean. 20:30ean plazan bilduko dira elkarrekin joateko, eta bestela, 21:00etan Errezilgo jaiteztean bertan.

San Gregorio Egunean bertso afaria izango da

ALBIZTUR » Hilaren 17an, San Gregorio ospatzen da: Albizturren urtero gogoratzen dute egun hau eta aurten ere hala izango da, Udalak herritar bertso afari bat antolatuz. Albizturko Ugarte jatetxean izango da eta bertolaria ariko dira bertan. 21:00etan da afaria, eta bertara joateko asmoa duenak jaitezte deitu beharko du, Udalak «ahalik eta azkarren abisatzea» eskertuko duelarik. Jatetxearen telefono zenbakia honakoa da: 943 65 17 28.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Laburrak

'Las Uvas de la Ira' filma gaur, Gaztetxean

IBARRA ● Herrian sortu berri den Autoeskola Antikapitalista taldeak *Las uvas de la ira* filma eskainiko du gaur, 21:00etatik aurrera Gaztetxean. John Ford zuzendari bikiainak gidatutako filma John Stenbecken liburu entzutetsuaren egokitzapena da eta 1929. urteko krisiaren ondotik Ipar Ameriketako Estatu Batuetan emandako miseria islatzen du.

Erretiratuen Eguna ospatuko dute hilaren 23an

OREXA ● Oresako Erretiratuen Eguna hilaren 23an izango da, baina lehenago, hilaren 19rako, bazkarian parte hartzeko izena eman behar da. Izen emateko orriak herriko tabernan eta elkarteetan topatuko dituzte interesatuek. Erretiratuen Egunean, bestalde, meza izango da 12:00etan harizko instrumentuez osatutako laukotearen kontzertuarekin batera.

Babarrunaren eta txerriaren inguruko festa

IBARRA ● Herriko Hauspibarra Kultur Elkarteak babarruna eta txerriaren inguruan festa antolatuko du igande honetarako. 12:30ean txerriki desberdinen erakusketa eta dastaketa egingo dute herriko plazan, eta ondoren, 14:30ean, babarrun-jatea izango da. Bazkarirako txartelak Zubiaurren, Sendi-Ekintzan, Atarin eta Arkaitz-Azpin daude sagai 15 eta 6 euroen truke.

'Ecuador: Latitud 0' izango da Kultur Etxean

IBARRA ● Atzo iluntzean inauguratuko zuten Kultur Trukea 08 hamabostaldia barruan *Ecuador: Latitud 0* dokumentala ikusi ahal izango da gaur, 19:30ean Benito Izagirre kultur etxean. Hamabostaldia Barrak Ekuadorreko Ibarra eta Saharako Tichla herriekin dituen senidetzeak direla-eta antolatuko ohi du Ibarra Udalak guztien arteko kulturartekotasuna sustatzeko.

Xabi Fernandez eta Iker Martinez, ADOren irabazle

IBARRA ● Xabi Fernandez ibartarra eta Iker Martinez ADOk (Olinpiar Kirolen Elkarteak) Olinpiar Jokotako irabazleekin osatzen duen zerrandan egongo dira. Ondorioz datorren ADOren programan beka jasoko du bikoteak, nahiz eta ez zuten dominik lortu. Aipatu behar da bikotea Telefonica taldeko ontzi urdinaren buru direla une honean Munduko Bela Biran.

«Aurretik ez dut bide osoa egingo, ez da komenigarria»

Gaztelu » Igande honetan Ramon Otegi gazteluarrak anaiak, Luis Marik, 1990. urtean egindako marka hobetzen saiatuko da.

REBEKA CALVO

Gazteluko Kultur Astea benetan hitzordu bereziarekin amaituko dute igande honetan. Izan ere, goizeko hamaiketatik aurrera lasterketa proba izango da herrian.

Herriko Ramon Otegi izango da protagonista, gainera, 1990. urtean bera anaiak, Luis Marik, egindako marka hobetzen saiatuko da eta. Luis Marik, orduan, Gazteluko udaletxetik Ulko Aterpetxerako bidea, joan eta etorri, 43 minutu eta 35 segundotan egin zuen, eta marka hauxe da Ramon hobetzensaia-tuko dena, «ahaleginak egingo ditugu behintzat», dio.

Behobia-Donostia egin berri du eta ordu bete sei minutu eta 23 segundotan amaitu zuen, gainera. Lasterketa hau prestatzen aritu

izanak iganderako entrenatzea galarazi dio, Gazteluko lehen zatia gainera, «oso gogorra» izango da: «Igandekoak ez du Behobiarekin zerikusirik. Lehen zatia aldapa da eta gogorra izango da. Mendia da gainera, eta beldur pixkat bat ere ematen dit, ez baitdu zerikusirik mendian eta aldapan aritzea edo Behobiako modukotan aritzea».

Korri egiteko era eta erritmoa oso bestelakoak izango dira horretaz, baina Ramonek argi du zer egin behar duen marka hobetzeko: «Dezente korri egin. Aurretik ez dut bide osoa egingo, ez da komenigarria eta, baina zati txiki bat egingo dut ibilbidea ikusteko», gaineratu du.

Aspaldiko kontua

Desafio berezi honen kontua aspalditik datorrela dio Ramonek eta horrelakoetan izan ohi den moduan afalosteko tertulietan sortutakoa da: «Nire anaiak egin baino lehenago ere lagun batzuek egindako apustua da hau, hurrengo urtean neie anaiak egin zuen, orduan

korrikan oso ondo ibiltzen zen egia esan. Ondoren herrian xirikatu egin izan didate marka hori egiteko gauza ez nintzela eta esanez eta azkenean animatu naiz. Orain dela urte pare bat-edo ere herriatik aterata eta Ulirako bidea egin nuen eta bide gogorra dela ikusi nuen, hori oso argi dute». Orduztik herrian, eta etxean batez ere, izan ditu «pikeak» eta azkenean animatu da herriko Kultur Astearen barruan lasterketa egitera, izan ere «betidanik buruan izan dudana lasterketa da», argitu du Ramon Otegi.

Anaiak eta biak «oso ondo eramaten» direla dio Ramonek, baina hala ere «beti dago pike hori». Hori dela-eta bere marka hobetzen saiatuko da igandean, 11:00etatik aurrera.

Aipatu moduan Gazteluko Udaletxetik aterako da Ramon eta 43 minutu eta 35 segundo baino lehenago egin beharko du Ulirako bidea eta buelta. Ramon bere aldetik, igandean jendea Gaztelura joatera animatu nahi du, «plan polita da igande goizerako», esan du.



Kaotiko taldeak kontzertua eskainiko du Gaztetxean hilaren 22an. HITZA

Hainbat ekitaldi, Gaztetxearen 15. urteurrena dela eta

Ibarra » Ostiral honetan hasi eta hilaren 22a bitarte bertsolariak, hitzaldiak, talo ikastaroa eta kontzertuak izango dira, besteak beste.

ERREDAKZIOA

Ibarra Gaztetxeak 15 urte bete-tzen ditu aurtan eta hori dela-eta hainbat ekitaldi antolatuko dute datorren hamabostaldirako. Jaieguna nagusia hilaren 22an izango da: Piparmin Eguna bezala bataiatu dute eta ekintzak prestatu dituzte.

Lehenago, ostiral honetan bertan, izango da ere zeregina Gaztetxean; 22:30etik aurrera Bertso Sound Systema egongo da besteak beste, Xabier Silveira bertsolaria eta Aritz Sound Systemekin. Ondoren, Ibarra Kantaflor taldearen kontzertua izango da.

Hilaren 18an, asteartean, aldiz, 19:30ean herriko mendizabaleen abenturak ikusi ahal izango dira diaporama desberdinen bidez. Hurrengo egunean, asteazkenean, hilak 19, 19:00etan, Askagintzaren *Drogak Larrugorritan* hitzaldia eskainiko dute.

Hilaren 21an 18:30ean talo ikastaroa izango da herriko Bizi-Nahi Erretiratuen Elkartearen eskutik. Ondoren, talo jatea izango da Gaztetxean eta 22:00etan *Lucio* filma

eskainiko dute. Lucio Urtubia farraren gora-beherak ditu ardatz aipatu filmak.

Piparmin Eguna

Gaztetxearen 15. urteurrena ospatzeko egun handia hilaren 22an izango da: Piparmin Eguna.

Gaztetxeko kideek esandakoaren arabera, «urteak pasa ahala, uzta ezberdinak uztartuz, beti frexko -beti gazte- mantendu den Gazte Asanbladaren eguna» izango da. Euren helburua «Gaztetxetik igaro diren belaunaldi ezberdinen festa eguna izatea da, eta orokorrean Ibarra gazte guztien jaia» gaineratu dute. Egun guztiko ekintzetarako bonoak 25 euro balio du eta bazkarirako, jokuetarako, barrikoterako, otartekoetarako eta kontzertuetarako balio du. Kamiseta bat ere oparituko dute.

» PIPARMIN EGUNEKO EGITARAUA

- **11:30.** Hamaiketakoa.
- **12:00.** Poteoa plazatik trikitalarien laguntzarekin.
- **14:30.** Gazte-bazkaria Gaztetxean; mondejua eta asto-jatea.
- **17:30.** Gazte olimpiadak plazan.
- **20:30.** Barrikotea eta bokatak plazan.
- **22:30.** Kaotiko eta Montons taldeen kontzertuak. Ondoren DJak egongo dira.



Ramon Otegi anaiak orain hamazortzi urte egindako marka hobetzen saiatuko da igandean. NEREA URBIZU



14°
9°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	11°
HOTZENA	7°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralea: 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialea: 687 410 034. alegialea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitzaileak: 687 410 118. leitzaileak@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Kultur asteak

- **Ibarra.** *Ecuador: Latitud 0* dokumentalaren emanaldia Benito Iza-girre kultur etxean 19:30ean, Kultur Trukea Hamabostaldiaren barruan.
- **Amezket.** Gerra Zibilari buruzko hitzaldia Mikel Errazkinen eskutik 20:30ean gela polibalentean, Kultur Hamabostaldiaren barruan.
- **Alegia.** *Alegia barne barmetik* herriari buruzko DVDaren aurkezpena izango da Kultur Etxean, 19:00etan.

Deialdiak

- **Ikaztegieta.** Helduen bertso eskolako datu eta zehaztapen gehiago emateko bilera antolatu du Udalak, asteazkenerako, 20:00etan udaletxean. Izena eman dutenentzat eta izena eman ez baina interesa dutenentzat da bilera hau. Azaltzea eskertuko dute.
- **Tolosa.** 1958an jaiotakoek koktela eta afaria izango dute Fronton jaietxean. Izen-ematea, bertan 50 eurotan (619 420097 telefono zenbakian).
- **Tolosa.** Aisialdi itasuntzi eta yate patroia eta kapitain izateko ikastaroa Tolosan. Informazioa: 665 724870 telefonoan.
- **Tolosa.** Babarrunaren Astearren baitan, hilaren 22an Babarrunaren ibilbidea egingo da. Izen-ematea, Tolosaldea Tourren (943 697413).

Irteerak

- **Tolosa.** Aspe (2.645 m) eta Oroel (1.769 m) mendietara (Pirinioak) irteera antolatu du Oargi elkarteak datorren astebururako. Izen-ematea, 637 830380 telefono zenbakian.
- **Tolosa.** Urbasa - Goñi ibilaldia antolatu du Alpino Uzturre mendi elkarteak hilaren 16rako. 7 orduko ibilaldia da eta Saratsa (1.171 m) igoko da. Izen-ematea, elkartearen (943 652789).
- **Villabona.** Biltoki jubilatutako elkarrean Logroñora irteera antolatu du hilaren 20rako. Izen-ematea, Biltokian, Txerminen.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1.943 673649.
- **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52.112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan eta iritzien erantzunkizunik.

Udazkeneko jakiez gozatzeko

Baliarrain » Babarrun eta gaztain-jatea izan zituzten igandean, Kultur Elejiraren aurreko egunarekin batera.

NEREA URBIZU

Udazkeneko jakirik preziatuenerako ondo prestatu, eta hauek dastatzeko aukera eman zuten joan den igandean Baliarrainen. Kultur Elejiraren bidea irekitzeko ekitaldietako bat izan zen hura, eta 70 lagun inguru bildu ziren gaztainak eta babarrunak jateko. Arkaitez elkarteak antolatu zuen.

30 kilo gaztain eta 12 kilo babarrun prestatu zituzten guztira, Arkaitez elkarteak, eta «aurten, kasualitatea izan da, baina prestatu dituen sukaldaria da», Arkaitez elkarteak esan bezala. Goxoagoa izango zen bazkaria horrela...

Babarrun eta gaztain-jatearen ondoren, antzerkia izan zen Kultur Etxean, eta «jende ugari bildu zen bertan. Gainera, oso gustura egon ginen, polita izan zen».

Aurretik, igande goizean ibilaldi bat egin zuten Baliarrainen, inguru hobeto ezagutzeko.

Etzi lehen sorospenei buruz

Etzi, 21:00etan Kultur Etxean solasaldia prestatu dute Baliarrainen, Kultur Elejirarekin aurrera jarraituz. Kasu honetan, Josune Lazkanok bideratutako lehen sorospenei buruzkoa izango da hi-



Arkaitez elkarteak antolatutako babarrun eta gaztain-jatean 70 lagun bildu ziren. I. URRUTIA

tzaldia: gaixo dagoen baten bati nola lagundu, esaterako, azalduko dute, oinarrikoena azalduz.

Larunbatean egun berezia izango dute ere, talo tailerra baitago haurrentzat. Ondoren, hauek dastatzeko aukera izango da.

Jubilatuen egunean bazkaria

Igandean Jubilatuen eguna antolatu dute eta ohi bezala, hitzaldia ere prestatu dute horretarako. Bazkaria izango da 14:15ean eta bertara joateko izena emateko azken eguna gaur da, Udaletxera deituta (943 88 90 03 da telefono zenbakia).



30 kilo gaztaina erre zituzten igandean Baliarrainen. I. URRUTIA

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak
ezkontzak - jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZaren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZaren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

Purrix, Porrotx
eta Murrinotots

DVD berria
etxeko txikiak
jolasteko

PANPINAK



DVDa
(posterra opari)
18€



Panpina bakoitza
(txapa opari)
20€

Egin eskaria amaitu baino lehen
902-82 02 01 edo harpidetza@hitza.info
adierazi harpidedun kodea

hitza